

# Hernanik Kronika

TOKIKOM 2013ko abenduaren 20a, ostirala ::: 4.590 zk. ::: www.kronika.net



## ❖ GAZTE ASANBLADA

### Bilera gaur, Olinpiadei buruz hitz egiteko

Gaszte Asanbladak deituta, Olinpiadei buruz hitz egingo dute gaur, 18:00etan, Gaztetxean. ||

## ❖ PRESO ETA IHESLARIAK

### Gaur, 'Tantaz tanta euskal preso eskubideen alde'

Kontzentrazioa egingo dute gaur, 20:00etan, Zinkoenean, euskal preso eskubideen alde: *Tantaz tanta euskal preso eskubideen alde.* ||

## Lau zutabe herrira, datorren astean

Urteko azken ostirala da datorren astean abenduak 27, eta urtero bezala, gogorarazi dute lau zutabe aterako direla herrira, 20:00etan, Antziola, Etxeberri, Zikuñaga eta Portutik, Gudarien plazan bukatzeko. ||

## ❖ BERRIAK-KRONIKA

### Errifa zozketa gaur

Berriak merkatarik elkartek eta Hernaniko Kronikak gaur zozketatuko dituzte Gabonetako lau saskiak. 12:00etan, Biterin. ||

## ❖ SAHARA

### Supermerkatu aurrean egoteko zita, gaur eta bihar

Janaria biltzen ari dira Saharara bidaltzeko, eta gaur eta bihar zita egin dute supermerkatu atarian jartzeko. Plaza Berrin elkartu eta handik joango dira supermerkatuetara. Gaur, 17:30etan, eta bihar, 09:30etan. ||

## ❖ PSE-EE

### Festa igandean, urtea agurtzeko

Urtero bezala, igandean festa egingo du PSE-EEK Casa del Pueblon, 12:00etan. Urtea agurtu eta berriari ongietorria egingo diote, mokadu bat eginez. ||

OLAÑETA GARAGARDO ARTESANOAREN AURKEZPENA GAUR GUNEA GARAGARDOTEGIAN

*Pablo eta Iñigo Olañeta:*

## «Añarbeko urarekin egina izateak nortasuna eta izaera ematen dio garagardoari»

Olañeta anaiek modu artesoan egindako garagardoa probatzeko aukera jarri dute gaur Gunean, 19:00etatik 22:00etara. Pablo eta Iñigo anaiek bertan izango dira, zalantza guztiak argitzen.

OLAÑETA, 100% Gipuzkoan egindako garagardoa probatzeko aukera jarri dute gaur Gunea garagardotegian. Bereztasun guztien artean, bi ditu azpimarratzekoak: modu artesoan egindakoa dela erabat, eta osagaien artean, hain goraiatua den Añarbeko ura duela. Garagardoa Aste Santutik dago merkatuan, eta gaurko nobedadea da, barril edo kupeletik aterata probatzeko aukera izango dela. 19:00etatik 22:00etara jarri die hitzordua garagardozaleei. Egileetako bi, Pablo eta Iñigo Olañeta errenteriarak, bertan izango dira, zalantza, kuriositate eta bestelakoak azaltzeko gogoz.

### Zerbeza rubia eta tostata

Bi garagardo daude merkatuan: rubia eta tostata. Bereztasun gisa dute filtratu eta pasteurizatu gabeko garagardo naturalak direla, eta botilan bigarren aldiz fermentatzen direla. Alkohola graduazioari dagokionez, rubiak 5º ditu eta tostatuak 6º.

Gunea garagardotegian eta Kitton badira hilabete batzuk aukeran dituztela. Javi jabearen esanetan, garagardo oso ona da, eta probatzen duen jendeak errepikatu egiten du: «zerbeza hau ikaragarri ona dago entzun izan dut askotan; marka on edo ezagun askorekin alderatzen dute bezeroek. Garagarrez egindako zerbeza da, eta jendeak estimatu egiten du hori. Gustoko garagardoen artean dute askok orain, kalitate oso onekoa baita».



Hiru anaien artean egiten dute garagardoa, argazkian Pablo eta Iñigo.

### «Añarbeko ura, berezia»

Zein da ur batekin edo bestearekin egitearen aldea? askok egiten diete galdera hori Olañeta anaiei, garagardoa Añarbeko urarekin egina dela esaten dutenean. Erantzuna, argia da: «Añarbeko urak nortasuna eta izaera ematen dio Olañeta garagardoari. Ez da gauza bera hemengo ura erabili edo beste nonbaitekoa. Mineralizazioak asko esan nahi du, eta garagardoaren kalitatean asko nabaritzen da. Añarbeko ura onenen artean dago, eta horregatik azpimarratzen dugu hainbestetan».

### 0 Km politika: bertan ekoiztu, bertan kontsumitu

Patxarana, sagardoa eta beste hainbat edarirekin gertatu den bezala, geroz eta gehiago dira garagardoa etxean egiten dutenak. Anaiek diote, lehengora itzultzeko ohitura areagotzen ari dela, eta etorkizuna 0 Km politika bultzatzea dela: «bertan ekoizten hasi behar dugu: edariak, baratzak... eta bertan kontsumitzen. Gure gertuko batek zioen, bertan erosten baduzu, diru hori bueltan etortzen dela, eta ez zuen arrazoirik falta».

### Garagardoaren kultura, bultzatu

1921etik dago Licorera Vasca enpresa martxan. Egun, Pablo, Jose Luis eta Iñigo anaiek darimate, baina sortzaileak Jose Luis aitona eta Ezequiel aita izan ziren. 2010ean berriro nahian, merkatuan zeuden edari eta bestelakoak aztertzen hasi ziren, eta hala hasi zuten garagardo artesoan egitearen prozesua. Etxean hasi eta komertzializatzerira iritsi dira. Orain garagardoaren kultura bultzatzea dute helburu: elkartu, probatu... beste edariek ere egin ohi den moduan. ||

Gunearen eskutik, **Olañeta**, Gipuzkoan egindako garagardoaren aurkezpena.  
ABENDUAREN 20an, 19:00-22:00

Argarain kalea, 2 behea  
Telf: 943 33 25 29

**Arrandegia**  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobi.: 653 74 10 97  
20120 Hernani

Orain bi tokitan aurkituko gaituzte:  
⇒ **Lizeaga 4an.**  
Ogia eta bolleria aukeran.  
Orduetgia 07:15-14:00/17:00-21:00

⇒ **Akarregi poligonoan**, obradore nagusia, denda eta kafetegia.  
Orduetgia: 05:30-13:30/16:00-19:30



## TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauez:** Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

## EGURALDIA

**GAUR** Lainotuta egongo da zerua eta tarteka zaparradak botako ditu. Arratsaldetik aurrera, atertzera egingo du. Temperatura jaitsi egingo da. Min.5° / Max.10°.

**BIHAR** Hobera egingo du. Eta nahiz eta zerua guztiz garbi ez egon, urdine zabalez gozatzeko aukera izango da. Haizeak hegotik joko du. Min.2° / Max.12°.

## KIROL SAILA

# Gaur iluntzean banatuko dira Kirol Sariak

Lau sari banatuko dira: Kirolarien Saria emakumezkoentzat, Kirolarien Saria gizonezkoentzat, Babes Saria eta Hernani Saria. Kirol instalazioei buruzko ondorioen berri ere emango da. 19:30etan, Biterin.

KIROL Sariak banatuko ditu gaur Udaleko Kirol Sailak, hernaniarrek kirol munduan egindako lana eskertzeko. 8 hautagai daude eta lau sari: Kirolarien Saria emakumezkoentzat, Kirolarien Saria gizonezkoentzat, Babes Saria eta Hernani Saria.

Emakumezkoetan, 3 dira hautagaiak: Esther Lopez boleibol jokalaria, Amaia Irazustabarrena palista eta Ainhoa Gaspar gimnasta.

Gizonezkoetan, berriz, bi

hautagai daude Kirolari Saria jasotzeko: Ioritz Arrieta pelotaria eta Peru Alfaro triatleta.

Babes Saria jasotzeko hautagai bakarra dago eta bera izango da saritua: AMR Refractarios S.A. enpresa.

Hernani Saria jasotzeko ere, bi hautagai daude: Miguel Angel Garin (atletismoa) eta Batis Larburu (arrauna).

Hautagaiak kirol elkarteek proposatu dituzte eta ondoren, beraien bozkaren bidez erabaki dituzte aurten-

go irabazleak. Gaur jakingo dira nortzuk diren sarituak.

### Kirol instalazioei buruzko ondorioak, sari banaketaren aurretik

Sariak banatu aurretik, kirol instalazioei buruzko hausnarketaren emaitzak eta konpromisoak azalduko dituzte. Gai hau lantzeko, lau foro antolatu zituen Udalak eta bertan bildutako datuen berri emango dute. Herritar guztiei luzatzen diete gonbitea. ||

## PELOTA



Hernaniko etorkizuneko pelotariak ikusteko aukera izango da.

# Txapelketa azkarra, gaur eta bihar, benjaminen artean

Hernaniko etorkizuneko pelotariak ikusteko aukera paregabea izango da, gaur 16:45etatik 18:45etara eta bihar 10:00etatik 20:00etara.

TXAPELKETA azkarra jokatuko dute gaur eta bihar, Hernaniko benjamin mailako pelotariak. Etorkizuneko pelotariak ikusi nahi dituenak aukera ederra izango du, momentu honetan klubean dauden 27 pelotariak ikusteko. Partidu bat baino gehiago jokatuko dute gaz-

tetxoek, eta erakutsi ahal izango dute denboraldia hasi zenetik ikasitakoa.

Gaur bi orduz ariko dira, 16:45etatik 18:45etara, eta bihar egun guztian, 10:00etatik 20:00etara. Onentzat sariak izango dira, eta parte hartzaile guztientzat opariak jarriko dituzte.

**Emakumea Pilotari gaur** Zarautzen jokatuko da gaur Emakumea Pilotari pala txapelketako 7garren jardunaldia. Bertan ariko dira, 19:00etatik aurrera: Tijero-Muga/Indo Aizpurua; Arruti-Lukas/Gutierrez-Perez. Ondoren, lehenengo mailako final erdia izango da. ||

## ◆ ZINEA

### 'Malavita' pelikula, gaur iluntzean

Ostiraler bezala, *Malavita* pelikula emango dute gaur, 22:30etan Biteri kultur etxean. ||

## ◆ UDALA

### Gazte lokalei buruzko prozesua blog berri batean dago

Blog bat jarri du Udalak Hernaniko gazte lokalei buruz egingo duten parte hartze prozesuaren informazioarekin. Informazioa jaso eta galdetegi betetzeko aukera emango dute bertan: *hernanikogaztelokalak.wordpress.com*. Atzo Kronikan ez zen helbide zuzena atera. ||

## ◆ SANTO TOMAS

### Hernaniko hainbat auzo eta elkartetan ospatuko da Santo Tomas

Hernanik Santo Tomas kutsua hartuko du gaur eta bihar Hernaniko hainbat auzo eta elkartetan ospatuko baitute festa. Gaur **Inmakulada** ikastetxean produktu desberdinetako postuak izango dituzte goizean, eta denak gonbidatuta daude azaltzera. Bihar, **Sagastialde** elkartean 19:00etan da txistorrada eta bazkide guztiak gonbidatuta daude. **Orkolagan** festa antolatu dute haurrentzat, 12:00etatik aurrera, toka txapelketa, sokatira eta txingak eta baita sagardo eta txistorra dastaketa ere; ondoren bazkaria, eta 16:00etan mus txapelketa; gauean kontzertuak: Vomito, Krisis, No Hope. **Lizeagan**, Gibelalde elkarteak 18:30etatik 21:00etara txistorrada jarriko du. **Garin** taberna kanpoan ere txistorra postua jarriko dute eta kolore naranjako *Libre* zapi erosteko aukera izango da. Dei egin dute Gabonetan zapi naranjarekin ibiltzeko. Horrez gain, **Goiz Argi** tabernan txistorra pintxoak banatuko dituzte 19:00etatik aurrera, edariaren truke. Trikitilariak ere izango dira eta euskal musikarekin girotuko dute taberna. ||

## ◆ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

### Mus Txapelketa izango da igandean

Auzoko Mus Txapelketa antolatu dute Osiñagan, urtero bezala. Igandean izango da 16:00etatik aurrera, Otsua-enea sagardotegian. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Momentuan eman behar da izena. ||

## ◆ GOIZ EGUZKI

### Ordutegi berezia eta dantzaldia

Gabonetan, ordutegi berezia izango du Goiz Eguzkik. Eguberri bezperan eta Urtezaharrean, 18:30etan itxiko da eta Eguberri egunean eta Urte berri egunean, 17:30etan irekiko ditu ateak. Bi egunetan dantzaldia izango da gainera. Horrez gain, bulegoa itxita egongo da bihartik urtarrilaren 7ra bitarte. ||

## ◆ KIROLDEGIA

### Gabonetan, lau egunez itxita

Eguberriak direla eta, Kiroldegia itxita egongo da abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1ean. Horrez gain, igerilekuak itxita egongo dira abenduaren 28an, txapelketak direla eta. ||

## ◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

**Garaje itxia salgai**, haundia (40 m2), Txirrita kalean. Deitu: 943 55 13 02

**Pisua alokagai zentroan**, 2 logela, sala, komona eta sukalde. Amueblatua eta igogailuarekin. Deitu: 617 426 489 / 943 33 61 32

**ETXKO KONPONKETAK egiten dira**; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna**. Deitu: 616 886 660.

**Inigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)